

BRAZZAVILLEN LENDAKARI BERRIA

Afrikan bi Congo dira, bat Belgikaren mendean egondakoa da ta aundiena ta ezagutuena da, Leopoldville du kapitala; bestea berriz Frantziaren mendean egona da, Belgikaren mendean egondakorea azpian dago, txikiagoa da, ez da ain entzuna ta Brazzaville du kapitala. Naiz ta ain entzuna ez izan, Afrikaren joera zerbaiz jarraitu duanag urte aurretan badaki Brazzavilleren izena. Izan ere Brazzavillen bildu ziran Frantziaren mendean egondako erri beltz geienak eta U.A.M (Afrika ta Malgache Batasuna) dalakoa sortu zuten. Oraingoz indartsu dabil alkartasun ori ta Afrikako errien artean sortu diraden guztien artean geiena ta indartsuegia irau duana da. (Jakiña orain afrikatar guztiak osatu duten O. U. A. — Afrikako Batasunaren Organizazioa — dalako orrek indar geiago duala dirudi). U. A. M. da Alkartutako Europarekin tratatu bat orain dala gutxi izanpetu duana, ta Afrikako errien artean moderazioarekin jokatzen dutenak dira ta itzal aundioak.

Brazzaville ortan izan dira ba egun aurretan egundalako zalapartak eta azkenean orain arteko lendakariak, Fulbert Youlou jaunak, lendakaritza utzi egin bear izandu du. Benetan apartekoa zan au. Apaiza, beti sotanarekin ibiltzen zana, bañan 1956'go urtetik, politikan parte artzea erabaki zuenetik Elizatik aparte ibilli dana, Bere Artzobispoak ukatu egin zion politikan parte artzeko baimena bañan Fulbert Youlou apaizak etzion kasorik egin, orduan kastigatu zuan bere Artzobispoak. Afrikako erriak asko bisitatutakoa, ta gañera nere uestez oso okzidentalera aldekoa Frantziarena benepeñ. Gañera oso gogoan daukat Katanga askatasun osoan zegoanien eta Tshombe angok lendakari zanean, Tshombe oso lagun aundia zuan nuabait eta Katangara, Elisabethvillera joan zan Afrikako lendakari bakarra izandu zan. Azken bolara ontan bere erriaren jaun da jabe izatera irixi nai zuan ta ill onen amabostean partidua bakarra partzeko asmoa zuan bañan sindikatuak atera zitzaizkion kontra ta azkenean sindikatuak langilleak izan dira Fulbert Youlou bota dutenak.

Bi gauz pentsatu erazitzen dizkit une ontan Brazzavilleren gertatutakoak. Bat, alergia demokraziaren indarra ta benetako demokratik, demokraziren eta gizonaren liberead: aundienak arriskuan dauden lekuetan benepeñ, sindikatueta biltzen ari dirala. Eta orrek bañan geiagoko pentsatu erazitzen dit lengo egunean «Le Monde»ko editorialian irakurtzen nuana Argefiar gertatzen ari diranak komentatzen zituaniar: «Jakin bear dana da ia demokrazia okzidentalak ikusten duten bezala erdi azitako errientzat «lujo» bat ez ote dan, ia indarra ez ote dan bearrezkoa erri bat azitzeko, ia errebulozioak ez dakarkiten berekin libertateen gutxitze bati».

Arregitar Rikardo'k

BURU AINBAT ABURU

EZTA...! BAIDA...!

BASARRI-ri gogo onez.

Nere esanak ez gaitziteza espero nuela nion nere artikulotxoan. Baiman predikua Aitasainduari xoilik eskeinia baldin ba zireun, diozun bezala, ene gainerratiko uestekizunak deus guttitan gelditzen dira. Ala ere luma derabilagunak, goiz edo berant irixtatzea segur. Leenagoko koblakariak, bere okerren artean doai bat bazuten; zirikalderi ez beltzurik egiten; umorea eta zear-mintzoa garai.

Xahu gara euskaldunak gaitzaldieri alde ona kausitzen ezpadakigu. Batzutan ala ere seriooki elektatzea komeni eta, zurekin nago fuintsean, astekari hunen 22-garren lumeroan zenionakin, emakume erdi bilusien nabarmenkeriaz.

Ezbakarrik ondartzan, lan tokietan eta bilkuretan emazteki koskeek ez diete gizoneri bekean uzten, ez eta elizetan ere. Oroitzeko dira karia huntarat. MANEZAUNDI idazlari aundia zenak, aspaldi izkiriutu lerroak:

«...Baiman harrigarri dena ez ueste gero emazte horiek oro, ahalkeia arrunt galdua duten horietarik direla, sosean «truk norahiri emaiten direnetarik, agorputza mozkin-salgai eginik, ez; ...» Apezak, apezpikuap eta Aitasaindua bera ari zaizkote eraiten soineko ahalkegarri horiek Elizak debekatzen dituela; ... Emazteki horiek arra-ren kizikatzeke naia, hain dute gogo bihotzean errotig sartua, nun Elizapo meatuak eta beren ohorearen zangopilatzeak ez ditu demendrenik ere lotsatzen, ez eta bere bidetik baztertzen; ... Ez dakit nork eraiten zuen holako emazteek gizonaren aizutasuna edo libertatea balute, zuhaitz-etarat igan «behar ginukela, hetarik iges egiteko.»

Alabainan, orainko emazteekin axolagakeritik eta gure oitura batzuen, edo leneko euskal prosalari eredu zenbeiten ausardiara, bada bide. Erdaldunek berek ezutze ixiltzeke Arzpreste de Hita bezalako euren olerkari aundiak.

Apat-Etxebarne

ARPIDEDUNEI

«ZERUKO ARGIA»ren artzaille guziet eskatzen diegu pasa ditezela lenbaillen «Caja de Ahorros Municipals»en sukursalik urbillenetik aurtengo lenengo sei illabetekoaren ordaina pagatzena.

etxeko-andre: irauñ arazi zure arropet jabol onekin garbituz:

A! orduan erosi **JABON LAGARTO!**

ATOMIZADO LAGARTO, apar zuridun jaboia,

Arropa gustilag, zuri eta koloredun, ariz-ari garbituko ditun jabol bakarra!

ATOMIZADO LAGARTO, jabol berezi, ur gutxi erabiliz guztia txuri utziko dizun jaboia!

Makina bat etxean ba'ezu, erosi gaur bertan **ATOMIZADO LAGARTO!**

Eskuz gabiketak egitekotan, erabili **LAGARTO!**
Orrela oinperatu dituzu zure buru-austeak.

MUNDUKU BERRIAK

Ipar-Amerika'ko gobernuko Kongresok debekatu ta galerazi egin du «Plan de braceros» edo dalakoa. «Braceros» atek Ipar-Amerika'ren egoaldeen arte-garal batzuetan lan egiten zuten Mejiko'tar langilleak ziran, eta beren lan-kondizioak etziran personari dagozkieanak. Katolikoak izan dira zenbait urte aurretan lur-jabetzadun jauntxoek egin oi zuten esplotazio onen aurka joan diranak. Pozik dira, lengo sistema obeagotzerik lortu ez badute ere, injustizia beintzat desegin dutelako.

Notre Dame izeneko Paris'ko katedraiak bere zortzireun urtea ospatu du surten. Gotiko estiloaz egina da, ta Sena Ibaiean kokatua, barku bat dirudi ur gañean. Alejandro III'garren Aita Santuak jarri zuan bere lenegiarria, ta 1363'ean bukatu zuten. Ba-da gizaldi bat bere berritze-lanean

atergabe ari dirala. Urtero ogei tonelada ari erabiltzen dira berritze ontan.

Alfrink Utrecht'ko (Holanda) artzobispo dan kardenalak komisio berezi bat egin du gerra atomikoaren problema aztertzeke. «Pax Christi» deritzaion pake-alkartasunaren Holanda'ko presidente danez egin du estudio-batzar au, ta bertan teolojiari, soziolojiari ta lege-arazoko zenbait espezialistak artuko dute parte. Oñe ia mintzatu dira komisio au antolatatu duten Holanda'ko «Pax Christi»ren mai-burukoak: Mundua Kristok emandako itzaropenez bete da gela egi bada, obligazio aundia da kristauntzat gaurko problemari erantzuten batezkorra ematea. Beste aldeetik, diokena da bigarren Vatikanoko Batzar-nagusiak bere bigarren saloan problema on buruz erabakiren bat artzea.

Portugal'ean zenbait jakintsu katoliko nazioko giza eta ekonomiproblema aztertzen egon dira. Oraingoa erabili dira lenengo aldirio onelako problema libertate osoaz. Salazar nazio-gidariak 74 urte ditu.

Vietnam'go komunistek laguntza eskeñi diete gobernuaren aurka dabilizan budisteri, baña auk ez diete onartu.

Ipar-Amerika'ko Partido komunista kolejo katolikoetako zuzendariak inbitatu ditu, «Pacem in terris» Juan XXIII'garrenaren enziklika aztertzen ta eztabaidan jartzera. Alderdi bakoitzak bere itzleri erresponsibleak eramango lituke.


Hainvas Hungria'ko primado-ordeko dan apezpikoak alkar-izketa bat izan du Erroman «Il tempo» periodikokoekin. Berak dienez, Vatikanoko eta Hungria'ko gobernuak asitako artu-emanak, Juan XXIII'garrenaren eriotzagatik geldirik egonak, berriz ere jarraituak izango dirala ueste omen dute bai kleroko eta baita berak ere. Uste aundia omen du artu-eman auk buksara batezkorra izango dutela. Hungria'ko gobernuaren partetik borondate on asko omen dago, ta Artzal gabe dauden sei Eleizbarrutien problema ez omen du ueste askatzen zaila izango danik.

Hungria'n 1962'ren asieratik onera eun eta amazppi apaiz «leiz-lana egiteko baitmek» gabe utzi dituzte erri-agintariak.


Illabete batzutako eztabaidak izan ondoren Suez'ko Parlamentuak esku-aldatu egin du ibil-tramankuloen ibil-joera. Orain arte ezkerretik ibilli dira ta aurrerantzean eskubetik egingo dute. Europa'n ba-dira oraindik bi nazio zirkulazioa ezkerretik egiten dutenak: Ingalterra ta Irlanda.

Peugeot fabriketan bost sindikatu-delegadu bidali ondorenez, Montbellard alderdiko apaizak dei bat leitu dute pulpitutik, ondorengo gai auztas Eleizaren dotrina agirian jarriaz: enpresari buruz «personen alkartasuna danez», sindikatuari buruz «langileen deia oi danez», eta autofinanziamentuari buruz «langilleentzat kredito-bide ta eskubide danez».

La Fandería, S. A.



Eratu gabeko
pentsoarekin



Fanderiko pensoarekin

Ez Merkenak,

Bai onenak!!!

Apdo., 36 Tel. 56134

RENTERIA